

# UPV/EHU-ko ZEHARKAKO GAITASUNAK ZABALDUZ

kreditu kopurua: 1 ECTS

Kodea EG2206

## Nori zuzendua

Edozein campuseko UPV/EHU-ko tituluetao irakasleei zuzendutako ikastaroa da.

## Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Gaitasunetan oinarritutako ikasketa planak abian jarrita, UPV/EHU-k hainbat ekimen bultzatu ditu ikastegiei curriculum garapenean eta berrikuntzan laguntzeko helburuarekin. Ekimen horietatik abiatuta, eskoletan eta fakultateetan gaiari buruzko gogoeta egin eta erabakiak hartu dira tituluetao irakasgaietan zeharkako gaitasunak identifikatzeko, koordinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.

Ildo berean, UPV/EHU-k, bere ikasle guztientzako komunak izango ziren gradu zein graduondokoetan enplegarritasunari lotutako Zeharkako Gaitasunak bultzatzeko asmoz, Katalogoa definitzeko helburua proposatu zuen. Ikasleen eta Enplegarritasunaren Arloko Errektoreordetzaren Praktiken eta Enplegarritasunaren Zuzendaritzak Katalogoa sortzeko lankidetzak prozesua koordinatu zuen. Prozesu honetan jakintza arlo guztietako gradu tituluetao koordinatzaileek, masterretako batzorde akademikoetao kideek eta doktorego programetao ordezkariak parte hartu zuten 2018. eta 2019. urteetan.

Gaur egun, Katalogoa UPV/EHU-ko zentroetao eta titulazioetao arduradunek beren zeharkako gaitasunak garatzen jarraitzeko erabil dezaketan dokumentua da. Ikastaro honek Katalogoaren ezagutzan eta hedapenean lagundu nahi du, baita Zeharkako Gaitasunen inguruan zentro edo titulu mailan prestakuntza eta aholkularitza beharrak ere identifikatu nahi ditu etorkizuneko ekimenak diseinatzeko.

## Ikastaroan zehar garatuko diren gaitasunak

1. Zeharkako Gaitasunen kontzeptua eta horrekin lotutako kontzeptuak identifikatzea (gaitasunak, konpetentziak, ikasketa-emaitzak...)
2. UPV/EHUko Zeharkako Gaitasunen Katalogoa aztertzea eta hura sortzeko erabili den prozesua ezagutzea.
3. UPV/EHU-ko Zeharkako Gaitasunak lantzeko metodologia eta ebaluatzeko tresnen erabileraren gainean gogoeta egitea.
4. Zeharkako Gaitasunen gaur egungo garapenearen egoera identifikatzea.
5. Zeharkako Gaitasunen garapen hurbilen inguruko gogoeta egitea.

## Metodologia

Ikastaroa lau orduko bi saio presentzialetan antolatuta dago. Saio bakoitzean edukiak aurkeztuko dira eta partaideekin batera aztertuko dira. Lehenik, UPV-EHUko Zeharkako Gaitasunen Katalogoa aurkeztuko da eta honen elaborazio prozesuari buruzko informazioa emango da. Jarraian Katalogoan azaltzen diren kompetenziak eta ikasketa-emaitzak aztertuko dira, hauek lantzeko metodologiak eta ebaluazio sistemak kontuan hartuz. Azkenik, Zeharkako Gaitasunak titulazio edo/eta irakasgai mailan zabaltzeko prozesuaren inguruko hausnarketa egingo da, abiapuntu, helburu eta behar desberdinak identifikatuz.

## Edukiak

1. UPV-EHU Zeharkako Gaitasunen Katalogoa.
2. Zeharkako Gaitasunak eta ikasketa-emaitzak.
3. Zeharkako Gaitasunak lantzeko metodologiak.
4. Zeharkako Gaitasunak ebaluatzeko sistemak/tresnak.
5. Zeharkako Gaitasunen inplementazioa.

## Zereginak

Ikastaroaren egiaztagiria lortzeko saio guztietan parte hartzea beharrezkoa izango da eta amaierako lana entregatu beharko da.

## Datuak

### Iraupena

10 ordu presentzial (2 saio) eta 15 ordu ez-presentzial (lan autonomoa)

### Datak

2022ko Urtarrilaren 26 eta Otsailaren 2

### Ordutegia

15:00-20:00

### Parte hartzaile kopurua

15

### Hizkuntza

Euskara

### Campusa

Gipuzkoa Carlos Santamarian: Irakaskuntza tailerra

### Irakaslea

Pilar Gil eta Esther Cruz (UPV/EHU)

### Izena emateko epea:

Deialdia zabaldu eta astebetetz luzatuko da izena emateko epea

### Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea

Izena langileen atariaren bidez eman beharko da. Ikasle kopurua mugatua izanik, partaideen izena ematearen ordenari, aukeraren lehentasunari eta campusari jarraiki hautatuko dira.

Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan, 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko.